# NAhitA

Enero 2016ko Urtarrila
Nº 27.zbk

Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailaren argitalpena Publicación del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Ermua




%100 paper birziklatua. Kloro eta zuritzaile optikorik gabea.
Papel 100% reciclado. Sin cloro ni blanqueantes ópticos.

## >> ASKATASUN EKONOMIKOA ETA DIRUA, GENEROAREN IKUSPEGITIK

## INDEPENDENCIA ECONÓMICA Y DINERO, UNA VISIÓN DESDE EL GÉNERO

# >> PROGRAMA ´ESCUELA DE EMPODERAMIENTO´
# >> ´JABEKUNTZA ESKOLA´ren EGITARAUA

## MINDFULNESS TAILERRA (15 ORDU) / TALLER MINDFULNESS (15 HORAS)

MIÉRCOLES, del 20 de enero al 17 de febrero. JUEVES 25 de febrero, de 17:30h. a 20:00h.

Irakaslea: Itziar Gandía (Espacio Lura) · **Matrikula: 5 Euro**

Tailer hau norbere osasun eta ongizatearekin konektatzeko espazioa da. Zenbat aldiz pentsatu ote dugu: "aldatu beharra daukat, hobeto sentitu behar naiz, lasaiago… edo gogotsuago", "nekatuta eta energiarik gabe nago", "ezin dut disfrutatu", "nire burua beti jardunean dago eta ahitu egiten naiz, pentsatu eta pentsatu" eta abar? Erlaxazioa, kontzentrazioa eta arreta bezalako tresnak landuko ditugu, sentsazio eta emozioak ezagutzen eta gure antsietatea, mina eta estresa baretzen ari garen bitartean, gure eguneroko bizitzak ihes egin ez diezagun.

Este taller es un espacio para conectar con la salud y el bienestar personal. ¿Cuántas veces pensamos: "necesito cambiar, sentirme mejor, más tranquila, o con más ganas…", "me siento agotada y sin energía", "no disfruto", "mi cabeza siempre está funcionando y me agoto pensando", etc.? Entrenaremos herramientas como la relajación, la concentración y la atención para que el presente de nuestro día a día no se nos escape, aprendiendo a reconocer sensaciones y emociones y aplacando la ansiedad, el dolor y el estrés.

## AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA (8 ORDU) / TALLER DE AUTODEFENSA FEMINISTA (8 HORAS)

El 27 de febrero, SÁBADO, de 10:30h a 14:30h y de 15:30h a 19:30h.

Irakaslea: Maitena Monroy · **Matrikula: 5 Euro**

Erasoak identifikatzen eta indarkeria-modu ezberdinen jatorria eta sorburua aztertzen ikasiko dugu, bai eta norbere buruarengan eta taldean dituen ondorioak ere. Eguneroko bizitzako eraso-egoerei erantzuteko eta horiek konpontzeko mekanismoak ikasiko ditugu. Espazio bat sortu gura dugu, geure eskubide eta gaitasunez jabetzeko, konfiantza eta segurtasuna sustatzeko, indarkeriaren inguruko mitoak hautsiz eta emakumezkoen ahulezia fisikoari buruzko estereotipo zaharrak desmitifikatuz.

Aprenderemos a identificar las agresiones, analizar el origen y construcción de la violencia en todos sus aspectos, así como sus consecuencias a nivel individual y colectivo. Buscaremos mecanismos para responder y resolver las situaciones de agresión en la vida cotidiana. Queremos construir un espacio que posibilite el concienciarnos sobre nuestras capacidades, fomentar la confianza y seguridad, rompiendo mitos en torno a la violencia y desmitificando viejos estereotipos acerca de la debilidad física femenina.

## "RAPA: JABEKUNTZA FEMINISTA LANTZEKO TRESNA" TAILERRA (16 ORDU) / TALLER "EL RAP COMO HERRAMIENTA PARA EL EMPODERAMIENTO FEMINISTA" (16 HORAS)

MARTES Del 2 de febrero al 22 de marzo, de 18:00 a 20:00h (Del 23 de febrero en adelante el horario será de 17:30 a 20:00h).

Irakaslea: Furia Soprano · **Matrikula: 5 Euro**

1970 hamarkadako New Yorkeko gune pobreetako raparen hasierako historiatik abiatuta, tailer honek rapa proposatzen du jabekuntza feminista lantzeko tresna moduan. Ukitzen gaituzten mekanismo sexistak identifikatzean datza, horien gainean hausnarketa egitean eta raparen bitartez, zentsura edo formalismorik gabe, nahi duguna adieraztean, gure errealitatea nolabait aldatzeko, guretzat osasungarriago izan dadin.

Este taller propone el rap como una herramienta para el empoderamiento feminista a partir de la historia inicial del rap, en la década de los años 1970, en las áreas urbanas de escasos recursos de Nueva York. Se trata de identificar los mecanismos sexistas que nos afectan, reflexionar sobre ellos y expresarnos sin censuras ni formalismos a través del rap para cambiar, de algún modo, nuestra realidad haciéndola más saludable para nosotras.

## PELBIS-ZORUAREN SENDOTZE-ARIKETAK PRAKTIKATZEKO ESPAZIO AUTONOMOA / ESPACIO AUTÓNOMO PARA LA PRÁCTICA DE EJERCICIOS DE REFUERZO DE SUELO PÉLVICO

Astelehenetan, 17:00etatik 18:00etara; **doakoa** - Lunes, de 5 a 6 de la tarde, **gratuito**

Espazio autonomoa, irakaslerik gabekoa, ikasitako ariketak praktikatzeko. Nahitaezkoa da pelbis-zorua sendotzeko ikastaroa eginda izatea. Partaide bakoitzak bere koltxoneta eta jantzi erosoak eraman beharko ditu.

Espacio autónomo, sin profesorado, para practicar los ejercicios aprendidos. Es imprescindible haber realizado anteriormente el taller de refuerzo de suelo pélvico. Cada participante debe llevar su propia colchoneta y ropa cómoda.

## PRESTAKUNTZA-ETA PARTAIDETZA-GUNEA ESPACIO DE FORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN

**BESTELAKO EKINTZAK / OTRAS ACTIVIDADES**



**KULTUR IRTEERA / SALIDA CULTURAL: martxoak 12 marzo.**

BERDINTASUNEKO UDAL KONTSEILUA CONSEJO MUNICIPAL DE IGUALDAD · ELKARTEAK ASOCIACIONES · SOLASALDIAK ETA ERAKUSKETAK TERTULIAS Y EXPOSICIONES · HITZALDIAK CHARLAS · ESPACIO DE CREAKTIVIDAD... ETC. · ETA ABAR

**Galdetu Emakumeen Topalekuan eta PARTE HARTU! Pregunta en la Casa de la Mujer y ¡PARTICIPA!**

Más información / Informazio gehiagorako: http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_espacio_formacion.asp

Teléfono y correo electrónico de la Casa de la Mujer / Emakumeen Topalekuko telefonoan edota posta elektronikoan:

Tfnoa: 943 17 10 30 · e.posta: igualdad2@udalermua.net

# >>Editoriala<<

Han eta hemen, matxismoa lasai gailentzen ari da, bai eta Europako herrialde aurreratuenetan ere.

Kolonian eta beste herri batzuetan urtezahar gauean izan ziren emakumeen kontrako eraso eta lapurreten albisteek zeresan eta "zer-idatzi" ugari eman dute eta mundu osoko egunkari eta telebistetako lehen mailan azaldu dira. "Haserrea", "sumindura", "hunkipena" "onartezina", "jasanezina"…horiek izan dira politikoen eta poliziaren adierazpenak, gaiaren larritasunaz eta horren sakonean dagoenaz konturatzea kostatu egiten zaiela dirudien arren.

Guri askoz gutxiago kostatzen zaigu horretaz konturatzea, zeren emakume legez badakigu –etengabe salatzen ari gara-eta- badagoela sexu-indarkeria bat, erabat matxista, mugarik gabea, bai ingururik hurbilenean edo familian bertan, bai errefuxiatuen kanpamenduetan, bai gure hirietako jai-lekuetan, bai gatazka eta gerretan azaltzen dena… eta badakigu halaber emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunean duela bere jatorria, sistema patriarkal unibertsal batek iraunarazten eta mantentzen duela, eta sistema horrentzat gai hau ez dela inoiz lehentasunezkoa izan, nahiz eta munduaren luze zabalean emakumeen hilketa eta indarkeria matxista kopuruak eta kasuak ikaragarriak diren. Orain izango dela lehentasunezkoa uste al duzue?

Gobernuek proposatzen duten konponbidea babesa eta aterpea emateko politikak gogortzea eta polizia gehiago ipintzea da. Hedabideek, aldiz, bortxatzaileen jaioterrian, beraien erlijioan eta kulturan jartzen dute arreta, ea antolatuta dauden ala ez eta haien azalaren kolorea ilunagoa edo argiagoa ote den. Horixe dela kezkagarriena pentsa dezagula nahi dute. Hori arrazakeria eta xenofobia da.

Feminismotik, berriz, irakurketa guztiz interesgarriak eta gomendagarriak egiten ari dira, desbideraketa horiek salatuz eta "purplewashing" edo "garbiketa morea" hitzarekin definitzen dituztenak, alegia, boterean daudenek herritar batzuk kriminalizatzeko eta, kasu honetan bezala, politika arrazistak aplikatzeko erabiltzen dituztela emakumeen borrokak salatzen ari dira. Baina guk honakoa diogu: ***Gure izenean EZ.***

Benetan garrantzitsuena honakoa da: erasoak egon zirela eta badaudela da, eta onartezina dela oraindik ere egotea, eta halakorik egon ez dadin emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna behar beharrezkoa dela eta indarkeria matxisten kontrako borroka erabateko lehentasuna izan dadila gobernu eta pertsona ororentzat.

Emakume alemaniarrak, beste hainbat lekutakoak bezala, jai-espazioetan zirriak egitea ez dela naturala edo saihestezina salatzera ausartu dira, eta beraien ekintza horrek egiturazko erantzunak sortu beharko lituzke, ez errua edo ikara. Berdin da erasotzaileak beltzak ala zuriak diren, kristauak edo musulmanak; maskulinotasun hegemonikoan hazi eta hezitako gizonak dira, eta horixe da goitik behera aldatu behar dena: sistema osoa.

El machismo sigue campando a sus anchas, también en la ***avanzada*** Europa.

La noticia de las agresiones sexuales y robos a mujeres en Colonia y otras ciudades durante la celebración de la nochevieja ha hecho correr ríos de tinta y ha pasado a la primera plana de los periódicos y televisiones de todo el mundo. "Indignación", "conmoción", "intolerable", "insoportable". Estas han sido las declaraciones de la clase política y de la policía, a quienes parece que les cuesta bastante identificar la gravedad del asunto y su fondo.

A nosotras nos cuesta mucho menos, porque como mujeres sabemos –lo estamos denunciando continuamente- que existe una violencia sexual, profundamente machista, que no conoce fronteras y que se suele producir tanto en el entorno más cercano y familiar, como en los campamentos de personas refugiadas, o en los espacios festivos de nuestras ciudades, o en los conflictos y guerras… Y sabemos también que su origen está en la desigualdad de mujeres y hombres, una desigualdad que perdura y se mantiene en un sistema patriarcal universal, para el que este tema nunca ha sido una cuestión de máxima prioridad, a pesar de las aterradoras cifras y casos de asesinatos y violencias machistas contra las mujeres a lo largo y ancho de este mundo. ¿Va a serlo ahora?

Los gobiernos proponen, como medida, el endurecimiento de las políticas de refugio y asilo, y que haya una mayor presencia policial. Los medios, por su parte, se han centrado en el país de origen de los violadores, en su religión y cultura, en si estaban o no organizados y en el color más o menos oscuro de su piel. Esto es lo que quieren que nos parezca más alarmante. Es racismo y xenofobia.

Desde el feminismo se están haciendo lecturas muy interesantes y recomendables, denunciando estas desviaciones y nombrándolas con el término "purplewashing" o "lavado violeta", es decir, denunciando la utilización de las luchas de las mujeres por parte de quienes están en el poder, para criminalizar a segmentos de la población y aplicar políticas racistas en este caso. Decimos: ***No en nuestro nombre.***

Lo que verdaderamente importa es que hubo y hay agresiones y que es escandaloso que se sigan produciendo. Y que, para que no las haya es necesario que la igualdad de mujeres y hombres y la lucha contra las violencias machistas sea una absoluta prioridad para todos los gobiernos y para todas las personas.

Las mujeres alemanas, como otras tantas en otros lugares, se han atrevido a denunciar que los tocamientos no son algo natural e inevitable en los espacios festivos, y su acción debería generar respuestas estructurales, no culpa ni terror. No importa si los agresores son blancos o negros, si son cristianos o musulmanes: son hombres construidos en la masculinidad hegemónica. Y eso es lo que hay que cambiar: el sistema entero.

# >> EZAGUTZEN AL DUZU...? ¿CONOCES? <<

## KULTUR BIDAIAK EMAKUMEENTZAKO

## VIAJES CULTURALES PARA MUJERES

Desde hace años, el Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Ermua organiza viajes culturales como parte de un amplio programa de actividades para el empoderamiento de las mujeres. Son salidas con una duración de un día, entre las 9 de la mañana y las 8 de la tarde aproximadamente, y se realizan en autobús un sábado por trimestre, a excepción de la época de verano. En cada viaje una guía experta en el tema establece un recorrido concreto, que discurre habitualmente por territorio de la Comunidad Autónoma Vasca o alrededores, fijando puntos de interés cultural para visitar.



Izena ematearen prezioa 5 eurokoa da pertsonako, eta prezio horretan ez dira sartzen museo edo espazio interesgarrietara sartu ahal izateko kasu batzuetan ordaindu behar diren sarrerak. Janariaria espazio ireki batean egiten da, eguraldiak uzten badu, jakina! eta bakoitzak berea eraman behar du, nahiz eta gero guztien artean konpartitu.

El programa pretende generar un espacio y un tiempo de ocio propio de las mujeres, desde una perspectiva de género, así como promover una postura más autónoma, activa y empoderante en el disfrute del tiempo libre. Otros objetivos son favorecer el intercambio y encuentro entre mujeres diversas (en edad, origen…), conocer datos históricos de interés de los lugares que visitan y avivar el interés por el conocimiento, la formación y la cultura, para lo que se visitan museos y centros de interpretación.

Programa honek hainbat urte daramatza abian eta harrera guztiz ona du Ermuko emakumeen artean. Izen-ematea Emakumeen Topalekura zuzenean joanez edota telefonoz egin daiteke zerbitzuaren arreta-orduetan (9.30etik 13:30era goizez eta 16.30etik 20:00etara arratsaldez, ostiraletan izan ezik).

**Informazio gehiago nahi izanez gero, edota izena emateko**

**Casa de la Mujer - Emakumeen Topalekua**

**Izelaieta kalea 12, 48260 ERMUA**

**Tfnoa. 943 171 030**

**igualdad2@udalermua.net**

# EHUKO BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA

# DIRECCIÓN PARA LA IGUALDAD DE LA UPV

UPV/EHUko BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZ
DIRECCIÓN PARA LA IGUALDAD DE LA UPV/EHU

Euskal Herriko Unibertsitateko Berdintasunerako egungo zuzendaritza unibertsitate horretako Gobernu Kontseiluak sortu zuen 2006an, bertako emakume eta gizonen eskubideak eta betebeharrak benetan berdinak izan daitezela bermatzeko helburuarekin.

Con el apoyo de la Comisión para la Igualdad de la UPV, creada en 2009, la Dirección asumió la misión de elaborar y desarrollar el Primer Plan de Igualdad en el ámbito universitario, tras hacer un diagnóstico de la situación de mujeres y hombres. Actualmente ya está vigente el segundo Plan de Igualdad.

Entre otras iniciativas, la Dirección presentó la *guía para el uso no sexista de la lengua castellana y de imágenes en la UPV*, para facilitar el análisis, la reflexión y la utilización sin carga sexista de términos comunes en el espacio universitario.

Informazio gehiago nahi izanez gero ondorengo web orria kontsultatu dezakezu: **www.ehu.es/berdintasuna-direccionparalaigualdad** Bertan, estekak, gradu eta graduondoko eskaintzak eta beste material interesgarri batzuez gain, Euskal Herriko Unibertsitateko emakume eta gizonen egoera-txostenak aurkituko dituzue.



# ASKATASUN EKONOMIKOA ETA DIRUA, GENEROAREN IKUSPEGITIK

# INDEPENDENCIA ECONÓMICA Y DINERO. UNA VISIÓN DESDE EL GÉNERO





>> **MUCHAS MUJERES DE NUESTROS DÍAS, MUY BIEN PREPARADAS PARA LA VIDA PROFESIONAL, MUESTRAN SIN EMBARGO PRÁCTICAS COTIDIANAS POCO AUTÓNOMAS RESPECTO AL DINERO**

Son muchas las personas que han escrito sobre la falta -y la necesidad- de la independencia económica de las mujeres: John Stuart Mill, Virginia Woolf… La psicóloga Clara Coria ha investigado y escrito sobre la relación de las mujeres con el dinero, mostrando que, en nuestra cultura, éste sigue siendo un tema tabú pero omnipresente, que hay que mirar con las gafas de género puestas.

Azken hamarkadetan emakumeak lan-merkatuan eta ordaindutako enpleguaren munduan txertatu dira, baina lortu duten askatasun ekonomikoa ez da izan, berez, beraien autonomia bermatzeko, emakumeen mendekotasunaren arazoa ez baita dirua eskuratze hutsarekin amaitzen.

Izan ere, dirua eskuratzea oso garrantzitsua da askatasuna lortzeko, baina ez da nahikoa: emakumeon emozioak eta diruarekiko harremanak aldatu beharra dago, hots, guk ere dirua edukitzeko eskubidea daukagula sentitu behar dugu, libreki administratzeko eta geure erabaki propioak hartzeko, errudun edo gaizki sentitu gabe.

## ZEHAZTU GABEKO ONDOEZA
## UN MALESTAR NO IDENTIFICADO

Ahora las mujeres también son médicas, ingenieras, matemáticas, empresarias, profesoras… Tienen formación y una amplia experiencia laboral, cobran un salario por su trabajo, pero sufren una serie de “malestares”, obstáculos y dificultades varias con el manejo del dinero. ¿Por qué?

Para María Jesús Izquierdo, doctora en economía, el problema radica en que a las mujeres no se



les ha dado legitimidad social ni se les ha educado para tener cosas, sino para conseguir recursos materiales a través de los hombres de su entorno. Recordemos que hasta hace relativamente poco tiempo, las mujeres tenían que pedir permiso a sus padres y/o maridos para poder sacar dinero del banco, no podían ser titulares únicas de un negocio, ni tener patrimonio propio.

Emakumeek diruarekin duten harreman zail horren atzean ondo barneratutako "irakaskuntza"k eta aurreiritziak ezkutatzen dira, errudun eta lotsatuta sentitzera daramatenak, emakumea izatea ez baita inoiz askatasunarekin eta dirua edukitzearekin lotuta egon, guztiz kontrakoarekin baizik. "Emakume izaten ikasteko" prozesu horretan baldintza konplexuak, identifikazioak eta irudikapenak agertzen dira, eta horien ondorioz funtzio batzuk beste batzuk baino gehiago garatzen dira, mugak eta oztopoak jartzen dizkien egitura psikiko pertsonal konkretu bat eraikiz.

Muchas mujeres de nuestros días, muy bien preparadas para la vida profesional, muestran sin embargo prácticas cotidianas poco autónomas respecto al dinero, terreno en el que se muestran poco eficientes: sienten malestar y cierto pudor al hablar de dinero, temen ser vistas como "materialistas" cuando defienden sus intereses económicos, delegan en los hombres cercanos la administración de sus bienes, o se sienten incómodas cuando ganan más que sus parejas. Todavía hoy, el interés por el dinero en una mujer es interpretado por parte de la sociedad como algo sospechoso y negativo.

## IDENTIFICACIÓN MUJER-MADRE-CUIDADORA DESINTERESADA

Decir *mujer* en nuestra cultura es evocar determinados atributos y actitudes que se reconocen como *femeninos*, a pesar de que `sexo´ y `género´ no sean lo mismo. Esta confusión lleva, entre otras cosas, a identificar lo femenino con lo maternal y en nuestra sociedad están bien descritas las cualidades que debe poseer una "buena" madre: ser desinteresada, entregada, tolerante, abnegada, cuidadora incondicional y todo ello a tiempo completo.

Dudarik gabe, emakume-ama identifikazioa ez da batere mesedegarria eta ondorio kaltegarriak dakartza, emakumeen eguneroko bizitzako hainbat aspekturekiko harremanak oztopatu eta mugatzen dituztenak.

Las mujeres queremos y tenemos derecho a ganar dinero y a poseer bienes sin sentirnos juzgadas por ello. Sin embargo, cuando tenemos un empleo remunerado, nos sentimos culpables por invertir tiempo, esfuerzo y energías en el ámbito público en detrimento de las tareas del hogar y de los cuidados de la vida. Una culpabilidad que, por el contrario, no sufren los hombres. Porque, en el fondo, a pesar de los cambios, en el imaginario colectivo se perpetúa la idea de que el espacio propio de las mujeres es el hogar y su trabajo el doméstico y de cuidados, y que los empleos de las mujeres no pueden ser otra cosa que "una ayuda económica para el hogar".

Pobreziak eta eskasiak beti izan dute emakume-aurpegia, eta hala da gaur egun ere oraindik. Emakumeak, emakume izate hutsagatik dituzten eginkizunen ondorioz, beraien lanaren zati bat doan ematera behartuta daude, etxeko lanak eta zaintza-lanak doan eta normaltasunez eginez. Horregatik emakumeak ez dira inoiz botere ekonomikodun subjektu izan, ez eta halakotzat eduki historikoki, egoera horrek dakartzan ondore kaltegarri guztiekin.

>> **DECIR MUJER EN NUESTRA CULTURA ES EVOCAR DETERMINADOS ATRIBUTOS Y ACTITUDES QUE SE RECONOCEN COMO FEMENINOS, A PESAR DE QUE `SEXO´ Y `GÉNERO´ NO SEAN LO MISMO**



## DIRUA BOTERETSUA DA
## PODEROSO CABALLERO ES DON DINERO

Dirua desio eta beharrizan jakin batzuk eskuratzen laguntzen duen baliabide bat da, eta horretarako ezagutzak eta trebetasunak eduki behar dira. Dirua oso ezberdin erabiltzen da onura bat lortzeko elkartrukatzen denean edota amatasuna tartean dagoenean, non altruismoa eta gorputz eta arima ematea nagusitzen den. Uste da diruak arrazoimenarekin zerikusi handiagoa duela maitasunarekin baino, eta horiek biak ez doazela bide beretik, baina horrek ez du esan nahi bateraezinak direnik.

Para muchas mujeres, las prácticas con el dinero suponen la presencia de actitudes contrarias a las actitudes dictadas por el *ideal maternal, lo femenino*, por lo que se crean en ellas conflictos inconscientes que generan el síntoma: la dificultad en el manejo del dinero.

Lo primero para poder resolver este conflicto es hacerlo visible. Y saber que es el resultado de una ideología cuyo fundamental interés es mantener a las mujeres alejadas de los medios de poder. Para que las mujeres sean independientes económicamente y que su relación con el dinero esté libre de culpas y de inseguridades es necesario luchar abiertamente contra la idea de que es algo "natural" que las mujeres no ganen tanto como los hombres, o que ellas sean las propietarias de las hijas e hijos, mientras que los hombres lo son del dinero del hogar, o delegar en los hombres las decisiones sobre inversiones o compras y gastos mayores, o que deban sentirse incómodas por exigir una remuneración justa a la calidad de su trabajo…etc.

### Aldarrikatzeko eta ospatzeko egunak
### Días para celebrar y reivindicar

*Otsailak 6 Febrero: Emakumeen mutilazio genitalaren kontrako nazioarteko eguna

*Martxoak 8 Marzo: Día internacional de las Mujeres

*Martxoak 25 Marzo: Día europeo contra la trata de seres humanos

# KALE INKESTA

**Faktore ezberdinak daude diruarekiko gure jokabidean eragiten dutenak, eta horrek generoen estereotipoekin zerikusia du.**

Hay muchos factores que influyen en nuestro comportamiento con el dinero, y ello tiene que ver con los estereotipos de género.

## Preguntas GALDERAK

**1 Erraztasunez moldatzen al zara ekonomi gaietan eta zure diru-kontuekin edota halako gauzak gutxi gustatzen zaizkizu eta beste norbaiten esku uzten dituzu? Hala bada, gizon baten esku ala emakume baten esku uzten dituzu?**

¿Manejas con facilidad los asuntos económicos y tus cuentas o esos temas te gustan poco y los delegas en alguna otra persona? En ese caso, ¿se lo confías a un hombre o a una mujer?

**2 Nola sentituko zinateke zure bikoteak (gizonak) baino gehiago irabaziko bazenu? eta nola uste duzu sentituko litzatekeela bera?**

¿Cómo te sentirías si ganaras más que tu pareja-hombre? ¿y cómo crees que se sentiría él?

**3 Inoiz gaizki sentitu zara zeure dirua eskatzeko edota gastatzeko orduan? noiz-zein egoeratan?**

¿Alguna vez te has sentido mal respecto a exigir o gastar tu propio dinero?; ¿en qué situación?

## ZAIDA FERNÁNDEZ PÉREZ
### 31 URTE



1. Orokorrean ondo moldatzen naiz, baina emakume asko ezagutzen dut ez direnak eroso sentitzen. Senarren edo bikotekideen (gizonak) esku uzten dituzte halakoak.
2. Ni erabat gustora sentituko nintzateke egoera horrekin.
3. Aitortzen dut nire aisialdian ondo pasatzeko edo bidaiatzeko dirua gastatzen dudanean, noizbehinka, errudun sentitzen naizela, baina gero eta gutxiago.

## IZASKUN RODRIGUEZ ELKORO
### 26 URTE



1. Nire ekonomia mailak ez du sailtasunik suposatzen, baina kontu hauek ez zaizkit asko gustatzen. Neba ekonomi aholkularia dudanez, bere esku lagatzen ditut.
2. Ni oso ondo eta bera ere bai, baina badakit kasu batzuetan gizonezkoak gehiago irabaztea arazo bilakatu litekeela.
3. Ezeroso bai, zenbat kobratu behar dudan galdetzerakoan, adibidez.

## LOURDES RODRÍGUEZ RAMOS
### 57 AÑOS



1. A mi no me resulta complicado, llevamos las cuentas mi marido y yo.
2. No creo que me sentiría mal, ni él tampoco.
3. En casa somos de buen conformar y gastamos lo que hay que gastar.

## BEATRIZ ÁVILA LÓPEZ
### 39 URTE



1. Betidanik ohitura izan dut ekonomi gaiez arduratzeko, barneratuta dauzkat gai horiek garrantzitsuak direlako. Hala ere badakit emakume asko ez direla eroso sentitzen, "paper pasiboa" hartzen dutela.
2. Txarto sentitzea, zergaitik??? Ze ondo diru-faltarik ez izatea, berdin da nork irabazten duen gehiago.
3. Egia esateko boladak izaten ditut, baina "beherapenak" izaten direnean gehien bat.

# PASATIEMPOS

## DENBORAPASA



## EBAKIGARRI
## RECORTABLE

Hilekoen egutegi praktikoa. Halako egutegiak 28 eguneko zutabeetan antolatzen dira, urte osoko hilekoen zikloak erraz ikusi eta kontrolatzeko.Práctico calendario de menstruaciones. Este tipo de calendario se establece en columnas de 28 días, para poder examinar visualmente y controlar el ciclo menstrual durante todo el año.

**CALENDARIO MENSTRUAL 2016**

| | ENE | | FEB | | MAR | | ABR | | MAY | | JUN | | JUL | | AGOS | | SEPT | | OCT | | NOV | | DIC | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Astelehena | | 25 | | 22 | | 21 | | 18 | | 16 | | 13 | | 11 | | 8 | | 5 | | 4 | | 28 | | 26 |
| Asteartea | | 26 | | 23 | | 22 | | 19 | | 17 | | 14 | | 12 | | 9 | | 6 | | 5 | 1 | 29 | | 27 |
| Asteazkena | | 27 | | 24 | | 23 | | 20 | | 18 | | 15 | | 13 | | 10 | | 7 | | 6 | 2 | 30 | | 28 |
| Osteguna | | 28 | | 25 | | 24 | | 21 | | 19 | | 16 | | 14 | | 11 | | 8 | | 7 | 3 | | 1 | 29 |
| Ostirala | 1 | 29 | | 26 | | 25 | | 22 | | 20 | | 17 | | 15 | | 12 | | 9 | | 8 | 4 | | 2 | 30 |
| Larunbata | 2 | 30 | | 27 | | 26 | | 23 | | 21 | | 18 | | 16 | | 13 | | 10 | | 9 | 5 | | 3 | 31 |
| Igandea | 3 | 31 | | 28 | | 27 | | 24 | | 22 | | 19 | | 17 | | 14 | | 11 | | 10 | 6 | | 4 | |
| Astelehena | 4 | | 1 | 29 | | 28 | | 25 | | 23 | | 20 | | 18 | | 15 | | 12 | | 11 | 7 | | 5 | |
| Asteartea | 5 | | 2 | | 1 | 29 | | 26 | | 24 | | 21 | | 19 | | 16 | | 13 | | 12 | 8 | | 6 | |
| Asteazkena | 6 | | 3 | | 2 | 30 | | 27 | | 25 | | 22 | | 20 | | 17 | | 14 | | 13 | 9 | | 7 | |
| Osteguna | 7 | | 4 | | 3 | 31 | | 28 | | 26 | | 23 | | 21 | | 18 | | 15 | | 14 | 10 | | 8 | |
| Ostirala | 8 | | 5 | | 4 | | 1 | 29 | | 27 | | 24 | | 22 | | 19 | | 16 | | 15 | 11 | | 9 | |
| Larunbata | 9 | | 6 | | 5 | | 2 | 30 | | 28 | | 25 | | 23 | | 20 | | 17 | | 16 | 12 | | 10 | |
| Igandea | 10 | | 7 | | 6 | | 3 | | 1 | 29 | | 26 | | 24 | | 21 | | 18 | | 17 | 13 | | 11 | |
| Astelehena | 11 | | 8 | | 7 | | 4 | | 2 | 30 | | 27 | | 25 | | 22 | | 19 | | 18 | 14 | | 12 | |
| Asteartea | 12 | | 9 | | 8 | | 5 | | 3 | 31 | | 28 | | 26 | | 23 | | 20 | | 19 | 15 | | 13 | |
| Asteazkena | 13 | | 10 | | 9 | | 6 | | 4 | | 1 | 29 | | 27 | | 24 | | 21 | | 20 | 16 | | 14 | |
| Osteguna | 14 | | 11 | | 10 | | 7 | | 5 | | 2 | 30 | | 28 | | 25 | | 22 | | 21 | 17 | | 15 | |
| Ostirala | 15 | | 12 | | 11 | | 8 | | 6 | | 3 | | 1 | 29 | | 26 | | 23 | | 22 | 18 | | 16 | |
| Larunbata | 16 | | 13 | | 12 | | 9 | | 7 | | 4 | | 2 | 30 | | 27 | | 24 | | 23 | 19 | | 17 | |
| Igandea | 17 | | 14 | | 13 | | 10 | | 8 | | 5 | | 3 | 31 | | 28 | | 25 | | 24 | 20 | | 18 | |
| Astelehena | 18 | | 15 | | 14 | | 11 | | 9 | | 6 | | 4 | | 1 | 29 | | 26 | | 25 | 21 | | 19 | |
| Asteartea | 19 | | 16 | | 15 | | 12 | | 10 | | 7 | | 5 | | 2 | 30 | | 27 | | 26 | 22 | | 20 | |
| Asteazkena | 20 | | 17 | | 16 | | 13 | | 11 | | 8 | | 6 | | 3 | 31 | | 28 | | 27 | 23 | | 21 | |
| Osteguna | 21 | | 18 | | 17 | | 14 | | 12 | | 9 | | 7 | | 4 | | 1 | 29 | | 28 | 24 | | 22 | |
| Ostirala | 22 | | 19 | | 18 | | 15 | | 13 | | 10 | | 8 | | 5 | | 2 | 30 | 1 | 29 | 25 | | 23 | |
| Larunbata | 23 | | 20 | | 19 | | 16 | | 14 | | 11 | | 9 | | 6 | | 3 | | 2 | 30 | 26 | | 24 | |
| Igandea | 24 | | 21 | | 20 | | 17 | | 15 | | 12 | | 10 | | 7 | | 4 | | 3 | 31 | 27 | | 25 | |

# Noticias de interés
## ALBISTE INTERESGARRIAK

### >> APP "PALABRA DE MUJER"

La aplicación es de descarga gratuita y fue creada por la Asociación "Mujer, Ciencia y Tecnología" de la Rioja, y la Asociación Feminista Laguz. Su objetivo principal es difundir el pensamiento femenino, ya que reúne citas y obras de mujeres destacadas en la historia de la humanidad en los campos de la política, ciencia, derechos humanos, periodismo, sociología, arte, filosofía, etc. que han logrado hazañas en la historia mundial. Por medio de su web **http://www.palabrademujer.es** es posible colaborar y ayudar a aumentar el contenido o dar sugerencias para mejorar la aplicación. En este enlace podéis acceder a la descarga de la misma: **http://www.palabrademujer.es/index.html**

### >> KLITTO! ATARI DIGITALA

Feminismoaren inguruko aldizkari digital euskalduna da. Atari digitalaren honen oinarri, bide eta helburua feminismoa da. Feminismoaren gaiak jorratzen dira Klitto!-n, ikuspuntu feministarekin interpretatu eta lantzen dira albisteak, eta feminismoari ikusgarritasun eta irisgarritasun handiagoa ematea da helburua, euskara hutsean. Informazio gehiagorako: **http://www.klitto.com/**

### >> CIUDAD DE MUJERES

Esta web nació como un foro de mujeres en el año 2002 para convertirse en un portal feminista autofinanciado y sin ánimo de lucro en 2004. El nombre es un homenaje a Cristina de Pizán, primera mujer del siglo XV que vive de su producción literaria y defiende la autonomía de las mujeres. Este espacio tiene como objetivos principales impulsar a que el movimiento asociativo de mujeres se haga visible en las redes y fomentar la colaboración entre hombres y mujeres en esa apuesta cotidiana por la igualdad de derechos y oportunidades. Podréis encontrar, entre otros, noticias y artículos de interés, un poemario de mujeres, exposiciones fotográficas… Toda la información en: **http://www.ciudaddemujeres.com/**

### >> EMAKUMEEN ENPLEGUA SUSTATZEN

Emakumeak kontratatzeko diru-laguntzen gida eta emakume ekintzaileentzako laguntzen mapa argitaratu ditu Emakundek. Emakunderen webgunean eskuragarri dago jada "Emakumeak kontratatzeko diru-laguntzen gidaliburua" eguneratua. Beste baliabide batzuekin batera, "Emakumeen enplegua sustatzeko kontratu motei eta laguntzei buruzko gidaliburuak" ahalbidetu nahi du; batetik, emakumeek lan-merkatuan gehiago parte hartzea eta, bestetik, emakumeen pobrezia eta gizarte-bazterkeria murriztea. Gidaliburua herritarrentzat da, baita gizarte-eragileentzat eta enpresentzat ere. Gainera, dauden laguntzei buruzko informazioa emanez, ekintzaileei laguntza eta aholku ematen dieten erakunde publikoentzat eta pribatuentzat baliogarria izan daiteke. Informazio gehiagorako: **http://www.emakunde.euskadi.eus/u72-contema/eu/contenidos/noticia/2015_09_18_28259/eu_28259/28259.html**

### >> LAS ESCUELAS DE EMPODERAMIENTO EN LA WIKIPEDIA

El proyecto de las Escuelas de Empoderamiento para Mujeres cuenta ya con su propia página en Wikipedia, la enciclopedia libre. El artículo, disponible tanto en euskera como en castellano, reúne toda la información y el conocimiento generado durante años de trabajo en diferentes puntos de la Comunidad Autónoma Vasca. Las Escuelas para el Empoderamiento de las Mujeres están impulsadas por las Áreas y Departamentos de Igualdad y tienen como objetivo formar para fomentar la participación social y política de las mujeres, entre otros. La primera Escuela se creó en el año 2003 en Basauri, y Ermua se sumó a la iniciativa al año siguiente. En 2005 Basauri, Getxo, Ondarroa y Ermua formaron la Red de Escuelas de Empoderamiento de Bizkaia, que ha sido un ejemplo para la creación de más iniciativas, ya muy extendidas en la CAPV. Podéis encontrar más información en: **http://www.ermua.es/pags/index/ca_detallenoticia.asp?id=6872;**

### >> MARTXOAREN 8KO KARTEL LEHIAKETA-ERMUA-CONCURSO DE CARTELES 8 DE MARZO

Ermuko Aukera Berdintasunerako Sailak lehiaketa antolatzen du eta diseinu grafiko bat aukeratzea du helburu, zeinak feminismoaren borroka eta emakumeen partaidetza soziopolitikoaren ikuspegitik berdintasunaren ideia adierazi beharko duen.

El Departamento de Igualdad de Ermua organiza el concurso con el objetivo de seleccionar un diseño gráfico que represente la idea de igualdad, de lucha desde el feminismo y de participación sociopolítica de las mujeres. Bases disponibles en: **http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_8marzo_documentacion.asp?Programacion_Id=8**




> **Edita Argitaratzen du:**
**Departamento de Igualdad del Ayto. de Ermua**
**Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailak**

> **Redacción Erredakzioa:**
Begoña Fernández, Idoia Carracedo,
Zaida Fernández, Olga Bayón y Eva Carballal.

> **Coordinadora Koordinatzailea:**
Begoña Fernández

> **Realización Egilea:**
La Central B.E.

*Si quieres recibir la revista en tu domicilio, solicítalo en la Casa de la Mujer.*
*Aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, Emakumeen Topalekuan eskatzea besterik ez daukazu.*


*Se autoriza el uso de estos textos siempre que se mencione su procedencia.*
*Testu hauen erabilera baimentzen da, beti ere iturria aipatuz.*


**CASA DE LA MUJER / EMAKUMEEN TOPALEKUA**
Izelaieta kalea, 12 - 48260 ERMUA
Tfnoa: 943 171 030 · E.posta: casadelamujer@udalermua.net
web: www.ermua.es



Depósito Legal: BI-243/2010